



MOZORROEN FESTAK ZABALDU DIRA GUREAN

Lizartzan bihar hasiko dira Inauteriak eta otsailaren 7a arte luzatuko dira; ohiko egitaraua prestatu dute >6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2010-01-29

VIII.URTEA 1.915.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Andoni Iturzaeta, Elena Arrizbita, Nestor Ardanaz, Olatz Ilarregi eta Nerea Letamendia aurkezpenean. I. TERRADILLOS



Txosna Batzordeko kideak Euskal Herria plazan. I. TERRADILLOS

«Inauterietan funtsezkoa den jai giroa sortzen du txosnaguneak»

TOLOSA Euskal Herria plazan bilduko dira txosnak; leku finkoa aldarrikatzen du batzordeak 2

WEBGUNE BERRIA ETA ELASTIKOA INAUTERIAK IRAGARTZEKO

TOLOSA Kukuxumusu etxeak diseinatu du kamiseta eta gaur bertatik erosi daiteke Nestor Ardanazen dendan edo turismo bulegoan 4

San Blas erroskillak erosteko aukera bihartik aurrera

TOLOSA Etzi, asteartean eta asteazkenean ere ekitaldi ugari izango dira auzoan 3

Bildutako iritziekin triptiko bat osatuko dute bizilagunei banatzeko

TOLOSA Parte Hartuz taldeko kideak ari dira amaroztarren ekarpenak jasotzen 6

JOSE LUIS BARBERIA, 'ZILI' BERTSOLARIA

«Aurretik ez nintzen bertsotan ibilia baina beti gustatu izan zaizkit»

LEITZA 'Luze' eta Riaño herrikideekin batera etzi hartuko du parte Nafarroako Txapelketan 7

JOSE LUIS GARCIA SUKALDARIA

«Pena pixka bat eman dit, huts egin dudala sentitzen dut»

ZIZURKIL Madridfusion kongresuan bigarren egin du 5

LIZARRIBAR OINETAKOAK

Prezioak jeitsi ditugu!

1946tik

Arostegieta kalea z/g • TOLOSA • Tel.: 943 67 04 38

L Laburrak**Astelehenetik Laskorainen matrikulatzeko aukera**

TOLOSA ■ Datorren astean hasiko dira Laskorain ikastolan hurrengo urteko ikasturterako matrikulazio kanpainarekin. Hain zuzen ere, astelehenetik, otsailaren 1etik 12ra luzatuko da. Matrikulazio kanpainarekin batera, Laskorainek ate irekien bi saio antolatuta ditu ikastola gertutik ezagutzeko. Lehengo otsailaren 1ean, astelehenean, izango da, 18:00etan, Usabalgo eraikinean, eta DBHko aurkezpena egingo dute. Bigarrena, berriz, otsailaren 4an izango da, 18:00etan, Usabalen, eta Haur Hezkuntzako aurkezpena egingo dute.

Bakea aldarrikatuko dute gaur, Hirukideko ikasleek

TOLOSA ■ Bihar izango da Bakearen Eguna, eta urtero bezala, Hirukide ikastetxeak hainbat ekimen antolatuta ditu egun horren harira. Hala, gaur 12:00etan Hirukideko ikasleak bilduko dira Triangulo plazan ekitaldia egiteko, eta tolosar guztiak gonbidatu dituzte parte hartzera. Astelehenean hainbat ekintza burutu dituzte Bakearen Egunaren inguruan, baina gaurkoa izango da ekitaldi nagusia. Besteak, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleek Hirukide-Jesuitinetako patioan egingo dute ekitaldia, 16:30ean.

Igor Obesoren erakusketa ikusgai GKO Gallery-n

TOLOSA ■ Igor Obesoren beira lanak daude ikusgai GKO Gallery-n (Kale Nagusia). Bihar izango da erakusketa ikusteko azken aukera. Goizez nahiz arratsaldean bisitatu ahal da.

Odroizolaren askatasuna eskatzeko manifestazioa

TOLOSA ■ Pello Odroizola tolosarrak 22 urte bete zituen atzo espetxeratu zutenetik. Amnistiaren Aldeko Mugimendutik azken ostiraleko ohiko gaurko elkarretaratzeari gain, etzirako manifestaziorako deialdia zabaldu dute «Odroizolaren askatasuna exijitzeko». Manifestazioa Triangulotik abiatuko da, 18:00etan.



Txosna Batzordeko kideak atzo Euskal Herria plazan eginiko agerraldian. Bertan jarriko dituzte aurten ere. I. TERRADILLOS

«Txosnen afera festaren beste antolakuntza atalen pare eztabaidatu behar da»

Inauteriak ■ Udalak gaiari trataera berezia ematea salatu du Txosna Batzordeak; euren ustez leku finkoa beharko lukete.

ERREDAKZIOA

Tolosako Txosna Batzordeak adierazi duenez, Inauterietan txosna gunea «jaien ezinbesteko zati» da, «Inauterietan antolatzen diren beste hainbat jarduerak eta zerbitzu bezala, gune honek ere ordezkari ezina den giro bat eskaintzen baitie bertan parte hartzen duten milaka pertsonari eta aldi berean orokorki Tolosako Inauterietan». Horregatik, Tolosako Udalaririk erreferentzia eginez, «oztopoak oztopo», txosnagunea urteetan zehar «hobetuz» joan direla diote eta «beraren antolakuntzan trabak ezartzea eta berraukaltzea, azken finean, Inauterietan jai giro orokorra kaltetzea» dela.

Txosna Batzordeak atzo eginiko agerraldian azaldu duenez, ez dute onartzen «azken urteetan behin eta berriz Tolosako Udalak txosnen kokalekuaren auziari eman dion trataera». Izan ere, eu-

ren ustetan, «txosnagunea ez da gatazkabatu, Inauterietan zati bat baidak. Ez ditu gatazka sortzen, bai ordea, Inauterietan funtsezkoak den jai giroa».

«Txosnen antolakuntza festa batzordean erabaki behar da»

Festa oro antolatzeak sortzen dituela desadostasunak uste du Txosna Batzordeak, «baina arazo hauek inoiz ere ez dute festarekin amaitzea edo berraukaltzea eragin behar, arazo hauek irtenbide egoki eta adostu bat ematen ahalaginduko behar dela uste dugu». Hala, batzordekoen arabera, «guneari

Txosna Batzordearen arabera, Euskal Herria plaza da txosnarentzat lekurik egokiena

urtero ezarriak izan zaizkion mugak ahalik eta hobekien bete ditu, hauekin ados egon ala ez».

Txosnen antolakuntzari dagokion guztia Festa Batzordean eztabaidatu eta erabaki behar dela uste dute, eta horrela egin dute aurten, «orain arte, Tolosako Udalak txosnen auziari trataera berezia ematen saiatu izan delako». Horren harira, Txosna Batzordekoek udalarekin jarrera salatu dute: «Enpresabaten bitartez txosna gunearen kokalekua gatazka moduan

kudeatzeko saiakera egin zuten, eta horrekin ez gaude ados, areago behin baino gehiagotan hitz egin izan denean udalarekin parte hartzearen garrantziak». Horregatik, eurentzat «erabat positiboa» da Festa Batzordean parte-hartzea bultzatzea, eta halaber, horregatik, egoki ikusten dugu Txosna Batzordeak ere Festa Batzordean parte hartzea eta txosnen antolakuntzaren aferak bertan modu parte-hartzaile batean eztabaidatzea eta erabakitzea, honela festaren beste antolakuntza atalen parean tratatuko baitugu».

Txosna gunearentzat toki finkoa

Bestalde, batzordetik «argi» dute txosna guneak Tolosako Inauterietan toki finko bat behar duela. «Toki finkoak txosnari jaien barruan erreferentzia puntua ematen dio, antolatzaileoi dekorazioa eta programa lantzeko aukera ematen digu eta bai batzordeari eta bai udalarekiko berari ere, antolakuntza lan guztiak urte urte finkatzea eta hobetzea baimentzen die». Euren ustez, leku finko hori Euskal Herria plaza izan beharko litzateke; «toki egokiena eta zentzuzkoena dela iruditzen zaigu, nahiz eta gure interes hutsei bakarrik begiratu bagenie egia den aukera hobeak ere badaudela», azaldu dute.

Gune atsegin eta dibertigarria

Aurten ere, txosnagunea «gune atsegin eta dibertigarria» izan dadin «ahalik eta txukunen» antolatu aritu direla azaldu dute, eta jarritako baldintzak eta neurriak betetzeko konpromisoa hartzen dutela. Era berean, herritar guztiak gonbidatu dituzte «gune atsegin, parte-hartzaile, herrikoi eta parekidera» gerturatzen.

K Kirol jarduerak**Gaur, ostirala****Areto futbolak**

■ Usabalgo beheko kantxan neska, 20:45etik aurrera: Laskorain-La Salle.

Bihar, larunbata**Areto futbolak**

■ Usabalgo beheko kantxan, 12:00etan, jubenil mailako partida: Laskorain - Aloña Mendi.
■ Usabalgo beheko kantxan, 16:00etan: Tolargi - Ventanas Isu.
■ Usabalgo goiko kantxan, 18:00etan: Laskorain - Jarrileros.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantxan, 10:30ean, infantil neska: Eki TAKE - Añorga.
■ Usabalgo goiko kantxan, 12:00etan, jubenil mutilak: TAKE - Easo Haizeta.
■ Usabalgo goiko kantxan, 16:00etan, nazional mailako partida: Bide Bide Ibizeta - Tabirako.

Judoa

■ Usabalgo tatamietan, goizez eta arratsaldean, judo txapelketa.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, infantil mailako partida: Tolosa CF - Lengokoak.
■ Usabalgo futbol zelaian, 11:00etan, infantil txiki mailako partida: Tolosa CF - Hernani.
■ Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, emakumezko kadeteen F11 erako partida: Tolosa CF - Eibar.
■ Usabalgo futbol zelaian, 15:30ean, preferente mailako partida: Tolosa CF - Usurbil.
■ Berazubini, jubenil nazional mailako ligako partida, 16:30ean, Tolosa CF - Leioa.
■ Usabalgo futbol zelaian, 17:30ean, emakumezkoen senior mailako F11 partida: Tolosa CF - Vasconia.

Txistulari eta Musika Bandaren kontzertua, etzi, lurreamendin

ERREDAKZIOA

Udal Txistulari Banda eta Tolosako Musika Bandaren kontzertua izango da etzi, lurreamendin egotzian, 11:30etik aurrera. Inaki Letamendiaren eta Luis Mari Gartziaeren zuzendaritzapean Kaldereroretako nahiz Inauterietako ohiko doinuak joko dituzte, besteak beste.

Bestalde, Tolosako Musika Bandatik esan dutenez, lehengo ki-deek otsailaren 7ko pregoiaren kontzertuan parte hartu nahi badute otsailaren 2 eta 4an, Musika Eskolan, 20:30ean, izango diren entsegetara joan beharko dute.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

GALDUTAKOAK

■ **Urrezko katea.** Amezketako Zazpi-Ilturri inguruan urrezko katea aurkitu da. J.Z. inzialekin. Deitu 678 47 66 12 telefono zenbakira.

Iragarki laburrak

San Blas erroskilla izango da berrero ere auzoko jaien izar borobila

Tolosa » Bihar hasiko dira eta igandean, asteartean eta asteazkenean ere ekitaldiak antolatu dituzte Emendek elkarteok.

ERREDAKZIOA

Bihar hasiko dira Tolosako San Blas auzoko jaiak. Igandean, asteartean eta asteazkenean, San Blas egunean, izango dute jarraipena. Beste behin San Blas opila izango da jaietako erregina. Postu bat jartzen dute baselizaren ondoan eta herritar ugari joaten dira tradizio handiko gozoa erostera.

Emendek arrauk elkarteak antolatzen ditu jaiak, Udalaren laguntzarekin, eta ekitaldiak ere ohi-koak izango dira. Esaterako, toka lehiaketak izango dira bihar eta asteazkenean. Musikak ere ez du huts egingo. Disko Festa bihar eta asteartean egongo da. Trikiti doinuak ere entzungai izango dira Elustondo anai-arrebekin. Aizkolarien eta bertsolarien saioak igandean izango dira.

Egun horretan, ohitura denez, Amarozkotako taldeak emanaldia eskainiko du, baina ez dira iaz bezalako mozturrotuko. Orduan, zenbait emakumezko gizonezko bezala eta gizonezko batzuk emakumezko bezala jantzi ziren. Aurten goan, besteak beste, agurra, makil dantza, fandangoa eta arin-arina dantzatu dituzte Amarozkoak.



Amarozko dantzariak alaitzen dute giroa San Blas auzoko jaietan. IDOIA LAHIDALGA

» EGITARAUA

Urtarrilak 30, bihar

- 12:00. Ume jolasak.
- 16:00. Toka lehiaketa, herrialdeko kontzertu.
- 18:30-21:30era. Disko Festa.

Urtarrilak 31, etzi

- 09:00. Diana, Konponezinak txarangarekin.
- 11:00. Amarozkotako dantzarien saioa.

- 12:30. Unai Otaño eta Joseba Otaegi aizkolariak.
- 13:00. Angel Mari Peñagarikano eta Sustari Colina bertsolariak.
- 18:00. Bertsolarien bigarren saioa.
- 18:00-21:30. Elustondo anai-arreba trikitalariak.

Otsailak 2, asteartea

- 18:30-21:30. Disko Festa.

Otsailak 3, asteazkena San Blas eguna

- 11:00. Meza nagusia ospatuko dute bertako produktuen beainkapena eginez.
- 12:30. Toka lehiaketa egingo dute auzokoentzat eta elkarteoentzat.
- 18:00-21:30. Elustondo anai-arreba trikitalariak alaituko dute giroa.

Udalak San Joan kaleko baimena kendu diezaioke zuzen erabiltzen ez duenari

Alegia » Zenbait erabiltzaile ez dira ondo erabiltzen ari baimena, kalean aparkatuz edo beste bati utziz.

ERREDAKZIOA

Alegiako Udalak bandoa kaleratu du San Joan kalean sarbidea izateko baimen bereziari buruz. Udalak zehazten duenez, zenbait herritar baimena gaizki erabiltzen ari dira. Erabileraren desegokiak «baimena kentzea» ekar dezakeela dio Udalak, hau da, mandoa ezeztatzea.

Dirudienek, zenbait erabiltzaile kalean aparkatzen ari dira edo baimena ez duenari txartela uzten ari dira. Udalak baimena «era zuzenean» erabiltzeko eskaera egin du, baimen hori kentzeko neurria ez hartzeko. Baimendu bakoitzari idatzi pertsonala bidali dio Udalak.

Txintxarri Abesbatza bertso eskolakoekin santa-eskean

Alegia » Agate Deunaren bezperan Zazpi Astoren Gaian eskolakoekin batera ariko dira herrian zehar abesbatzakoak.

ERREDAKZIOA

Agate Deunaren bezperan, otsailaren 4ean, kantari aterako dira urtero bezala Alegiako Txintxarri Abesbatzako abeslariak, baina aurten herriko Zazpi Astoren Gaian bertso eskolako bertsolariekin batera ibiliko dira santa-eskean.

Txintxarri abesbatzak 50 urte bete zituen enge egunean, eta urteurren hori dela eta, ospakizunak egingo ditu urtean zehar. Aurten go emanaldi guztiak bereziak izango dira. Agate Deunaren bezperan Txintxarri Txiki abesbatzarenekin, herriko bertsolariekin eta nahi duten herritar guztiekin bate-



Txintxarri Abesbatzako kideak Agate Deunaren bezperan eskean. N. UZARTZA

aterako dira kantuan abesbatzakoak.

Auzoz auzo, kalez kale ibiliko dira, herriko zoko guztietara iritsi arte. Abesbatzakoek Agate Deunaren bezperan kantatu ohi den bertso doinua kantatuko dute herritarrekin batera eta bertsolariek koplak eta bertsoak botako dituzte

bat batean. Bertso saio batean bezalaxe, edozein gairi buruzko bertsoak izango dira.

Txintxarri abesbatzak herriko elkarteekin batera ospatu nahi du urteurren berezia. Egun horretarako entsegu irekia gaur egingo dute, 21:00etan, Alegiako kultur etxean.

Aurrera-Saiaz Lezamako eta Aretako txapelketetako finalaurrekoetan

Pilota » Pilota eskolako Albusu, Telletxea, Narbarte eta Zubiri lehiatuko dira; gaur jokatu dituzte partidak.

ERREDAKZIOA

Aurrera-Saiaz pilota eskolakoak Lezamako (Bizkaia) eta Aretako (Laudio, Araba) txapelketetako finalaurrekoak jokatu dituzte gaur. Lezaman Aurrera-Saiazeko Albusu ariko da, ondoan Azpiri elorriarra duela. Aretako txapelketen finalerako txartela lortzeko asmoarekin Aurrera-Saiazeko Narbarte eta Zubiri ariko dira finalaurreko batean. Bestean Aurrera-Saiazeko Telletxea ariko da, ondoan Ollo nafarra duela.

Asteburu honetan, Euskadiko txapelketan hiru partida izango dituzte etxean Aurrera-Saiazekoak eta bost kanpoan. Etxeko hiruko Beotibarren jokatu dituzte, bihar, 11:00etan hasiko den jaialdian. Lehenengoan Joseba Senperena nagusien ohorezko mailan ariko da. Bigarrenengoan Ibai Arratibel jubenila eta hirugarrenean Ion Ander Albusu nagusien mailan.

Udaberri txapelketari dagokionez, zazpi partida izango dituzte asteburu honetan. Horietatik lau etxean izango dira eta gehienak gaur jokatu dira. Bidaniako frontoian hiru partida jokatu dituzte, 19:00etan hasita. Beste norgehiagoka Beotibarren jokatu da, bihar, 10:00etan.

Babarrun jatea antolatu dute herritarrek otsailaren 6rako Herrigintzan

Ikaztegieta » Txartelak 18 euro balio ditu eta Toki-Alai tabernan eta Herri Ostatuan eskuratu daitezke.

ERREDAKZIOA

Babarrun jatea antolatu dute herritarrek Ikaztegieta ostailaren 6rako, larunbata. Bazkaria Herrigintza elkartearen egingo da eta 14:00etan hasiko da. Lehenengo aldiz antolatu dute horrelako babarrun jatea herrian.

Txartelak erosteko aukera dago Toki-Alai tabernan eta Herri Ostatuan. 18 euro balio du bazkaria. Antolatzaileek deialdia herritar guztiei zabaltzen die eta gogorarazi dute txartelak erosteko azken eguna ostailaren 1a dela.



Andoni Iturzaeta, Elena Arrizibita, Nestor Ardanaz, Nerea Letamendia eta Olatz Ilarregi, atzoko aurkezpenean. KLUSK

Elastiko berria soinean

Gizartea » Kukuxumusuak diseinaturiko elastikoa gaurtik egongo da salgai; Inauteriei buruzko webgune berria ere aurkeztu dute.

INIGO TERRADILLOS

Aurrerantzean Tolosara etortzen diren bisitariek bertakoa den zer-bait gehiago izango dute eramateko oroigarri moduan, elastikoa, hain zuzen. Izan ere, gaurtik salgai daude herriko bi gunetan eta Internet bidez Tolosako inauterien marrazkia duten elastikoak. Horrez gain, webgune berri bat ere martxan izango da astelehenetik aurrera, www.tolosakoinauteriak.com. Webgune honetan Tolosako Inauterietz dagoen oro sartu nahi dute bultzatzaileek, argazkiak, bideoak, abestiak, pasarteak... Gainera, nahi dutenek izango dute parte hartzeko aukera, era berean, webgunea elikatuz.

Nestor Ardanazen ekimenez jarri dute martxan ideia. Tolosarrak Kukuxumusu etxeari proposatu zion Tolosari buruzko elastikoa egitea. «Tolosako irudi esanguratsuen aukeratu behar zen, eta Inauterietan egitea erabaki genuen, eta horrelako irudi bat egiteko Kukuxumusu etxea zela egokiena pentsatu genuen», azaldu zuen Ardanazek atzo eguneko aurkezpenean. «Elastikoaren irudiak Inauterietan garrantzitsuak diren bi une isladatzen ditu: zezenetarako sarrera, giro berezia sortzen baita bertan, eta egunez San Franzisko eta Rondila kalean sortzen den jende pila eta giroa, eta tartean txaranga bi gaiak lotzeko», gehitu zuen tolosarrak.

Tolosako Inauterietan buruzko elastikoa izan arren, urte osoan zehar izango da eskuratzeko aukera, horretarako hiru modu daudelarik: batetik Oriá kaleko Nestor Ar-

danaz argazki dendan, Santa Maria plazako Tolosako turismo bulegoan eta Interneten www.tolosakoinauteriak.com webgunean.

Udala «gustura» ekimenarekin Kukuxumusu etxeko ordezkari moduan Edurne Arrizibita izan zen aurkezpenean. «Gustura» hartu zutela Nestor Ardanazen proposamena azaldu zuen: «Beste hainbat herrietako elastikoak ere, Iruñeko San Fermin jaietakoak, esaterako, beraz, Tolosari buruzkoa egitea ideia ona iruditu zitzaigun, eta plazerra izan da horrelako lan bat egitea», azaldu zuen.

Tolosako Udalaren ekimena izan ez den arren, Udala «gustura» azaldu da ideia honekin. Elastikoaren aurkezpenean Nerea Letamendia azoketako zinegotzia, Andoni Iturzaeta jaietako zinegotzia eta Olatz Ilarregi turismo teknikaria izan ziren. Ideiaren bultzatzaileak eskertu dituzte «herriari begira eguneko gisa horretako ekimen bat bultzatzeagatik», eta «ideia egokia» iruditu zaien eta «Tolosako bisitariei eskaintzeko aproposa delako» turismo bulegoan ere salgai jarzea proposatu zioten Nestor Ardanazi. Halaber, www.tolosaldea.net webgunean www.tolosakoinauteriak.com webgune berrira lotura edo linka

» DATUAK

Tolosako elastikoa

■ **Salgai.** Oriá kaleko Nestor Ardanaz dendan, Santa Maria plazako turismo bulegoan eta www.tolosakoinauteriak.com webgunean.

■ **Neurriak eta prezioa.** Gizon zein emakumeentzako 18 euro eta haurrentzako elastikoak 15 euro.

Webgune berria

■ **'www.tolosakoinauteriak.com'.** Inauterietan buruzkoekin osatuko dute: argazkiak, bideoak, abestiak... Edonork izango du bertan parte hartzeko aukera. Astelehenetik aurrera izango da erabilgarri.

ere jarri dute ekimenarekin nolabait bat eginez.

Tolosako Inauterietako webgune berria

Bestalde, atzo aurkeztu zuten, baita ere, Tolosako Inauterietan buruzko webgune berria, www.tolosakoinauteriak.com. Nestor Ardanazek esan bezala, «argazki ugari izango dira bertan ikusgai, baita bideoak eta abestiak ere. Finean Inauterietan zerkusua duen guztiak izango du lekua bertan, eta nahi duen orok izango du bertan parte hartzeko aukera». Webgunea astelehenetik aurrera izango da erabilgarri.



Marrazki honekin irudikatu dituzte Tolosako Inauterietan. HITZA

Laburrak

Hirukiden ate-irekien jardunaldia, otsailaren 3an

HEZKUNTZA » Matrikulazio kanpainan sartuta daude Hirukiden, eta astelehenean, otsailaren 3an, 16:00etan, Hirukide-Jesuitinetan, 2007an jaiotako umeen gurasoentzat bilera egingo dute, hezkuntza-proiektua aurkezteko. Otsailaren 2an, 18:30ean, Eskolapietan, 1998an jaiotako haurren gurasoentzat, DBH aurkeztuko dute. Otsailaren 3an, berriz, ate-irekien jardunaldia izango da Hirukide-Jesuitinetan, 17:00etatik 19:00etara.

Sahararren aldeko janari bilketa bultzatzeko ekimena

GIZARTEA » Pasa den larunbatean bezala, Tolosaldea Sahararekin elkarrekin haima jarriko du bihar Tolosako Triangulo plazan. 11:00etatik aurrera zabalik izango da haima eta bertara joan ahaliko du nahi duen orok. Tea dastatu ahaliko da, eta baita saharar ohiko jakiak jan ere, eta bertako musika tradizionala izango da entzungai. Ekimen honekin, herritarrek sentsibilizatu nahi dituzte bukatzean dagoen janari bilketan parte hartzera.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipirita baserria - Santio Zaharra www.rezolasagardotegia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sagardotegia.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergoñatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gortziategi baserria, Martutene pasadikua, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txortolietako pasadikua

Gortziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5 Km. www.gortziategi.com

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urdeta
Ostarañ auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre Gain baserria, Eroñen auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Oñalaga auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Oñalaga auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Urtebil
Urdaira baserria

Arratzain Tel.: 943 366 663 Urtebil
Arratzain zahar baserria

Urbartarte Tel.: 943 180 119 Añua
Ergoñen auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba toki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ibañategi
Ibañete baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Adana
Goragarra baserria (Golburu auzoa) www.zabala.com info@zabala.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Añua
Behalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 130 Iñan
Meska auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabae auzoa, 5

DIEZ Autobusak

• Autobusak eta irratietan bertan bertan

• Batek eta besteak batera

• Tolosa, Aginaga, Ibañete, Argandoña

Martutene kalea, 34 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 20012 DONOSTIA

PREZIOA: 1,50€ (BILKETA: 2,00€) (BILKETA: 2,00€)

E Elkarrizketa

JOSE LUIS GARCIA » Sukaldaria

«Bigarren geratzeak pena pixka bat eman dit. Huts egin dudala uste dut»

Zizurkil » Jose Luis Garcia Zizurkilgo Abeitxe Jatetxeko sukaldaria da. Sei finalisten artean, bigarren postuarekin konformatu behar izan du Madridfusionean.

ENERITZ MAIZ

Jose Luis Garcia legazpiarra, Zizurkilgoen Abeitxe Jatetxeko sukaldaria da. Asteazkenean, Madridfusionean lehiaketan izan zen bertan jokatu zen *Tapas y pinchos de diseño* txapelketan. Tenerifearak eskuratu zuen lehen postua eta bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen *Tortibia de bacalao* pintxoak.

Nondik aterata zen Tortibia de Bacalao pintxoaren egitearen ideia?

Ni gastronomiaren tradizioaren oso zalea naiz eta hori dut oinarri. Asko hitz egiten da teknika berriez, sorkuntzaz... baina gastronomia tradizionala sormena duena izateaz gain bilakaera edota eboluzioa duena dela uste dut nik. Oinarri on bat hartu, hau da, gastronomia tradizionala, buelta eman eta gaur eguneko den edo izan daitekeen produktua bezala aurkezten dut. Tabernetako barretan dauden tortilla edota sagardotegietako bakailao tortilla guzti horiei buelta eman eta tortillari arrautza forma ematen saiatu nintzen. Hortik sortu zen ideia.

Idea edukizetik, plateren jartzeko bidea zein izaten da?



Valladoliden azaroan jokatu den Espainiako V. Pintxo eta Tapa lehiaketan hirugarren geratu zen. HITZA

Ni eta taldea lanean geundela, budo bat edota tortilla bat egiteko arrautzak txikitzen ari ginela, «arrautza forma duen tortilla bat egitea ondo egongo litzateke» pentsatu genuen. Ideia beti horrela ateratzen da eta nola egin daitekeen aztertzen hasten gara orduan. Nola egingo dugu arrautza-oskola? Gauza pila batekin hasi ginen beraz, zurringoa eta goringoa izatea. Eta horrela joan ginen ideia lantzen.

Hilabetetako lana al da?

Ez ez, lehenago. Era dibertigarrian ateratzen da, ez da buruhauste bat. Egiten dituzun probekin azkenean gustukoa den zerbait ateratzen da.

Madridfusionean lortutako bigarren postuarekin gustura?

Pena pixka bat ematen dit. Benetan esanda, kultura eta tradizioz, Donostia, Gipuzkoa, Araba, hau da, Euskal Herria osotasunean hartuta, jan kontuetan oso onak gara. Eta bigarren geratzea ez zait justua iruditzen. Hau da, nik huts egin dut.

Baina Espainiako sei finalisten artean zeuden?

Bai hala da baina huts egin dudala sentitzen dut. Tenerifeko batek

irabazi du eta gero gu, baina Gipuzkoako bezalako erakunde gastronomikoa ordezkatzeko, nahiago izango nuen lehen postua eskuratu, Gipuzkoa oso maila altuan baitago.

Orain beste pintxo edo proiekturik baduzu buruan?

Pintxoak asko bururatzen zaizkit eta proiektuak ere bai. Gipuzkoako txapelketara joaten saiatuko naiz eta ea zer ateratzen den. Eta Gipuzkoako ez bada Bartzelonan izaten den Alimentaria Barcelona izango naiz. Eta hobeto presatzen saiatuko naiz.

Tortibia de Bacalao pintxoaren proiektuarekin gustura?

Jatetxean dago. Eskatu eta probatu, eta ea zer iruditzen zaizuen.

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa Kuku elkartean

Anoeta » Hilaren 31ean, 15:30etik aurrera izena eman ahal izango da eta 16:00 hasiko da txapelketa.

ERREDAKZIOA

Igandean, hilak 31, Anoetan ospatuko den Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa ospatuko da. Kuku Elkartean izango da eta inskripzio ordua 15:30ean irekiko da. Txapelketa berri, 16:00etan hasiko da. Bikoteko, 20 euroko inskripzioa izango da.

Hauk izango dira sariak: lehenengo bikotearentzat 2 txuleta, ardo botila bana eta hurrengo kanporaketarako txartela. Bigarren bikoteak berri, bi untxi, ardo botila bana jasoko du eta parte hartzen duten bikote kopuruaren arabera, hurrengo kanporaketarako txartela ere eskura dezakete.

Parte hartzaile guztientzat ardo botila bana ere izango da.

Laburrak

Josune Bereziarturen hitzaldia Gurean

VILLABONA » Villabonako Jesusen Bihotza Ikastola IV. Kultur Astean dago eta gaur ere egitarau oparodute. 15:30ean, Patxin eta Potxin pailazoak izango dira. 18:00etan herritar guztiei irekia den Josune Bereziarturen *Erori eta berriz* hitzaldia izango da. Larunbatean, Tolosako Usabal Kirolegian eskalada saio praktikoa izango dute. Eta igandean, hilak 31, ibilaldi neurtua egingo dute eta luzea edo motza aukeran izango da.

Bihar 11:00etan Herri Batzarra udaletxean

ANOETA » Ezker abertzalearen udal taldeak, 2010eko egitasmo eta urrekontuen proposamena aurkeztu nahi da bihar 11:00etan herritarrei. Guztiak gonbidatuak daude parte hartu eta eztabaidatzera. Hauk dira jorratuko diren gaiak: Udalaren egoera ekonomikoa, udal finantziarioa eta 2010eko egitasmo eta aurrekontuak.

2010eko Oilategitik aleari buruz hitz egiteko bilera

ALKIZA » Gaur 20:30ean, Kultur Etxeko balio aitazeko gelan bilera izango da Oilategitik Taldeak antolatuta. Bilera honen helburua, 2010. urteko Oilategitik aldizkariari buruz hitz egitea izango da. Aldizkari honek aurtengo 10 urte beteko ditu eta 10. alea izango da.

Gaur hasiko da III. Beterriko Bertsolari Txapelketa

Asteasu » Aitz-Ondo Elkartean, 20:30ean elkartuko dira afaltzeko. Sorgin-orratzak eta Labezomorroak ariko dira.

E. MAIZ

Gaur 20:30ean, Asteasuko Aitz-Ondo Elkartean III. Beterriko Bertsolari Txapelketari hasiera emango zaio. Lehen kanporaketa honetan, Sorgin-orratzak eta Labezomorroak taldeak lehiatuko dira.

Lehen taldea, Iñaki Apalategi, Ander Lizarralde eta Unai Muñoa bertsolariek osatzen dute eta Labezomorroak hirukoa berri, Iñi-

go Izagirre, Jokin Uranga eta Jokin Labayenek. Gai-emaile lanean Egoitz Aizpuru ariko da eta bertso-afarian 70 lagunentzako lekua prestatu dute.

Kanporaketa honetan sailkatzen den taldea, zuzenean Villabonan jokatuko den finalera sailkatuko da.

2. kanporaketa Zizurkil

Bigarren kanporaketa Zizurkil Goiko Zentroan izango da otsailaren 6an 20:30ean hasita. Kasu honetan, Armiarmak eta Mandeuliak taldeak izango dira eta gai-emaile, Iker Iriarte izango da.

Bertso-afari bakoitzaren kostua 15 eurokoa da eta txartelak, Larramendi Bazkunaren egoitzetan, Zi-

zurkil Goiko Zentroan eta liburu dendetan daude.

Otsailaren 13an, Finala

Villabonako Irrintzi Elkartean jokatuko da III. Beterriko Bertsolari Txapelketako Finala. Aurten otsailaren 13an izango da, Tolosako Inauterietan. Bertan, Asteasu eta Zizurkil jokatuko diren kanporaketetan entzuleek beraiek emandako botoez aukeratuko dituzten bi taldeak izango dira. Gai-emaile lana berri Amaia Agirrek egingo du.

Finaleko bertso-afarian, 100 lagunentzako lekua dago. Txartelak, Larramendi Bazkunaren egoitzetan edota Irrintzi Elkartean bertan erosi daitezke.

» KANPORAKETAK

Gaur, 20:30ean Asteasun

■ **Sorgin-orratzak.** Iñaki Apalategi, Ander Lizarralde eta Unai Muñoa.

■ **Labezomorroak.** Iñigo Izagirre, Jokin Uranga eta Jokin Labayen.

Otsailak 6, Zizurkil

■ **Armiarmak.** Haritz Etxeberria 'Ministro', Arkaitz Oiarzabal 'Xamoa' eta Beñat Lizaso.

■ **Mandeuliak.** Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezola eta Jon Martin.

Finala, Villabon

■ **Otsailak 13.** 20:30ean izango da Irrintzi Elkartean. Bi kanporaketetako irabazleak lehiatuko dira.

Lagunartez eta bertsoaz, umore onean gozatu nahi duenak, Beterri aldean badu aukera datozen hiru asteburuetan; Asteasu, Zizurkil eta Villabon.

Guztia prest mozorroen festari ekiteko

Lizartza » Bihartik otsailaren 7ra ospatuko dituzte Inauteriak; tartean, mozorroak, musika, dantza,... izango dira.

ERREDAKZIOA

Eskualdean mozorroen festak hasi dira dagoeneko; Leitzako Ithoeten ondoren Lizartzako Inauteriak ere ate joka datoz. Ez dute berrikuntza handirik behar arrakastatsua izateko, horregatik ohiko egitarauari eutsiko diote. Bihar hasiko dira eta bi asteburuz luzatuko dituzte.

Duela urte batzuk hartu zuten Lizartzako Inauteriak Tolosakoen aurretik antolatzeo erabakia, jendetsuagoak izateko helburuz eta horrela izan da azken urteetan.

Ohi bezala gibel jateak emango die hasiera jaiari, aurretik plazan txekorra izango delarik. Ez dira faltako Inauterietarako izendatzen diren agintariak.

Otsolar dantza taldeak emanaldia eskainiko du jarraian, eta herri-tarek ere antzerkia egingo dute.

Astebete beranduago, berriz ere festan

Motorrak berotu ondoren, astebete atsedendia hartuko dute Lizartzarrek eta otsailaren 5ean berrekingo diete Inauteriei. Eta beharko dute bai atsedena, ekitaldiz beteriko asteburua izango baitute aurretik.

Txikienezako mozorro festak irekiko du asteburua. Eskolan egingo dute baina herria bera ere kolorez bustiko dute, ondoren egingo duten kalejiran.

Goiz oheratzea komeni zaie Lizartzarrei, larunbatean 07:00etan kalejirarako prest egon beharko dute eta. *Jeiki zaitezte lizartzarrok* doinupean puska biltzeari ekingo diote, hori bai, mozorroak soinean. Etxe Zahar baserrian gosari ederra emango diete, gainera.

Bildutako dirua xahutzeko aukera paregabea izango dute arratsaldeko kalejiran, sagardo dastatzean, talo postuan edota bertso poteoan. Baina horretarako ezinbestekoa izango da sabelak ondo betetzea, frontoian egingo duten bazkarian. Gurdia eta mozorroak, noski, ez dira faltako.

Ijitoaren erretzearekin, datorren urtera arte

Indarrak gordetzen dituenak igandea ere izango du gozatzeko. Meza nagusiaren ondoren, hamaitakoa eta puska biltzea egingo dute. Dantzarien emanaldiaren ondoren bazkaria ere izango da. Azken hau arrakastatsua izan ohi da, 500 lagun inguru elkartzen baitira bertan. Ohi bezala ijitoa erreko dute Inauteriak agurtzeko.

Festa gose direnek aukera paregabea izango dute, hortaz, Lizartzara gerturatuz gero.



Otsolar dantza taldeak iaz ere emanaldia eskaini zuen. I. LAHIDALGA

» EGITARAUA

Urtarrilak 30, bihar

■ **12:00.** Festari hasiera emango diote, txekorra plazan dela, gibel dastatzea eginez.

Jarraian. Antzerki parodia eta Otsolar dantza taldearen emanaldia.

Otsailak 5, ostirala

■ **14:00etatik 15:00etara.** Herriko eskolak antolatuta, mozorro festa.

Jarraian. Kalejira herrian zehar.

Otsailak 6, larunbata

■ **07:00.** Kalejira txistulariekin.

■ **09:30.** Gosaria Etxe Zahar base-rian.

■ **12:00.** Kalejira.

■ **14:00.** Bazkaria egingo dute frontoian.

■ **18:00.** Sagardo dastaketa, talogileak eta bertso poteoa.

Otsailak 7, igandea

■ **11:00.** Meza nagusia.

■ **12:00.** Hamaiketako plazan; bertean, dantzariak puska biltzen ariko dira.

■ **13:00.** Ihaute Dantzak herriko dantzarien eskutik.

■ **14:00.** Bazkaria.

Jarraian. Txarangak, karaokea, jo-kuak, zozketak,... izango dira.

Gauean ijitoa erreko dute Inauteriei amaiera emateko.

Galdeketa bildutako iritzia aztertzen ari dira

Tolosa » Bigarren fase honetan Parte Hartuz ikertaldekoek triptiko bat osatuko dute iritziekin, bizilagunei banatzeko.

N. LATABURU

Aisiaz, kirolaz, ingurune naturalaz, giza harremanez, merkataritzaz, enpleguaz, zerbitzuez, ekipamenduez, etxebizitzez,... eman ahal izan zuten iritzia amaroztarrek pasa den asteburuan Amarotz Auzo Elkarteak antolatutako herri galdeketa.

Auzoak zer nolako ekipamendu komunitarioak eduki beharko litzuzkeen, gai horren inguruan bizilagunek duten iritzia zein den eta zer nolako herria, zer nolako Tolosa nahi duten jakiteko helburuz antolatuta zuten herri galdeketa hau Auzo Elkarteak.



Auzokide ugari eman zuten euren iritzia pasa den asteburuan. N. LATABURU

Floren Altuna Amarotz Auzo Elkarteak kidearen esanetan, «parte-hartzearekin oso gustura» geratu dira. Izan ere, «batzutan bizilagunak lotan daudela dirudi, baina parte hartzeko aukera ematen zaie oso ondo erantzuten dute; parte hartzeko bideak ematen

gero jendeak iritzia ematen du». Era honetan, «berriro ere gure komunitateak argi erakutsi du aktiboki parte hartu nahi duela bere proposamenak azalduz eta bere beharrez egokienak diren erantzunak emanez». Gaineratu duenez, asteburuko galde-

tan «era guztietako iritzia heldu dira».

Elkarte bezala ere hitz egin du eta «jendea elkartzeko eta mugitzeko ahalmena eta gaitasuna» dutela konturatu dira. Iritziak ematearekin batera, bi postontzi zeuden auzotarrentzat. Batean galdetzen zen ea Udalak proiektuen inguruan herritarri galdetzea beharrezkoa den; bestean, berriz, Auzo Elkartearen lanaren inguruan galdetzen zen eta «honetan 300 erantzun inguru jasogenituen».

Hirurehundurik gora izan ziren, halaber, herri galdeketa parte hartu zutenak. Idatziz, berriz, 450en bat ekarpen jaso dituzte. Parte Hartuz taldekoek jendearen «parte-hartze altua» aipatu dute.

Altunaren ustez, «herritarrek oso ondo ulertu dute dinamika». Are eta gehiago «euren denbora dedikatu diote kontsultari, beste-ekin ekarpenak irakurriz, espazio

guztiak begiratu eta euren ekarpenak lasai eta pentsatuz eginez. Inor gutxi izan da panel guztiak aztertutako gabe alde egin duena».

Ondorioetan bildutako

Bigarren fasean daude orain. Parte Hartuz ikertaldekoek iritzi guztiak bildu zituzten eta aukeraketa bat eginen ari dira orain. 3 edo 4 aserter buruan, triptiko batzuk osatuko dituzte ondorio guztiekin, auzokideen artean banatzeko. Ondoren Parte Hartuz kolektibokoek kultur eta aisi alorretan dituzten hainbat lagun gonbidatuko dituzte; hauek «auzokideen proposamen hauek jarraipena ote duten» aztertuko dute. Aukerak dituztenak aztertu eta ez dituztenak baztertu ondoren, behin betiko proposamenak aterako dituzte.

Orduan igaroko dira hirugarren fasera, hau da, proposamen hauek Udaleria helaraziko dituzte.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

JOSE LUIS BARBERIA, 'ZILI' Bertsolaria

«Duela urtebete eskas hasi nintzen bertsoan»

Leitza » Nafarroako Txapelketa etzi, hilaren 31n, hasiko da 'Luze', 'Zili' eta Riañorentzat. Saioa Aoizko Kultur Etxean izango da, 17:30ean.

ASIER IMAZ

Salamancan ehizean zebilen atzo Jose Luis Barberia, *Zili*, (Leitza, 1981). Lagunen artean bederatziti uso bota ondoren, eguzkipean aurkitzen zen bertsolari leitzaarra, lasai ederrean: zerura begira eta telefonoz bertsoan.

Horrela prestatzen al duzu Txapelketa?

Pentsa, Salamancan usotan nabil eta telefonoz bertsoan jarri nauzu.

Nondik sortu zitzaizun bertsoarako irrika?

Lehengor urtean Diego Riañorekin Txapelketako saio bat ikustera joan nintzen; «hauek bezala, nik ere zer bait egin nezake» esan nion

neure buruari eta horrela hasi nintzen bertsoan. Aurretik ez nintzen bertsoan ibilia baina beti gustatu izan zaizkit. Duela urtebete juxtu hasi nintzen beraz.

Bertsoan hasteko asmo hori nola jarri zenuen praktikan?

Kasualitate izan zen. Miel Mari Eloseg, *Luze*, mendian aritzen zen lanean eta etxerako sutarako egurrak behar nuen. *Luze* markatzen zituen ez loteak, berarekin gelditu nintzen iluntze batean. Bertso eskolatik zetorren bera eta ea ni zergatik ez nintzen hasten galdetu zidan. Animatu eta horrelaxe hasi zen dena. Joxemarekin aritu ginen hasieran eta gero *Luzerekin* ibili naiz.

Xaltoa sariketan, azaroan, irten al zinen lehen aldiz jende aurrera?


Leitza, Sagardo Egunean, mikrofonoarekin atera ginen bertso batzuk botatzera. Baina jende aurrera atera naizen lehen aldia Xalton izan zela esan daiteke.

Nola ikusi zenuen zure burua?

Urduri. Baina gustura gelditu nintzen egindakoarekin.

Nafarroako Bertsolari Txapelketa prestatzeko zer egin duzu?

Egia esan ezer gutxi. Errimatgea landu nahi nuen baina azkenean unean aritu naiz korrika eta presak. Gehienbat lagunekin elkartu-



Alaia izeneko alaba jaioberria besoetan duela 'Zili', amaitu berri diren Leitza Inauterietan. A. IMAZ

takoan prestatu dut zer bait: Ibarrran Pototxotx bertso eskolakoekin, Leitza *Luzerekin*... Gero alaba, lana, ehiza eta denekin ez dut denborarik eduki.

Txapelketa honetan zein da zure helburua?

Parte hartzea da nire helburua nagusia; lehen aldia izango da eta oholtzan sentitzen den lotsa hori kentzearekin gustura. Gero ikusiko da. Kontuan eduki behar da Nafarroan gazteek ez dutela plaza asko egiteko aukerarik eta Txapelketa horretarako balio lezakeela.

Iazko txapelkunak, Xabier Silveira lesakarrak, aurten ez du parte hartuko.

Azken finean onena ez egotea beti da tristea. Egaña bat Euskal Herrikoan ez egotea bezalaxe da. Baina bere erabakia da eta errespetatu beharra dago.

Beste bi leitzarrak nola ikusten dituzu?

Hirurok elkarrekin arituko gara etzi. Beraiek aurrera egiten baldin badute, nahiz eta ni kanpoan gelditu, gustura egongo nintzateke. Egia esan Diegorekin egoteko au-

kera handirik ez dut izan, gehienbat *Luzerekin* aritu naiz. Hau fresko eta ongi ikusten du. Bertsoan urte batzuk badaramatza eta plaza batzuk ere eginak ditu; nire ustez bere lana egiten baldin badu finaleira iristeko moduko bertsolaria da *Luze*.

Nori eskainiko diozu igandeko saioa?

Lehenik ingurukoek, familiakoei. Gero bertso eskolatokoei, Leitza koei eta Ibarrakoei, eta lagundu didaten guztiei: Iñigo Etxorde, *Luze*...

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Azkeneko erantsailak 1500k arte josteko iragarriak salki argitaratuko dira.
IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldeko-hitza.iragarkilaburrak.com / 943-65 56 35 telefono zambakia

Lanbideagokariak
LAN ESKAKARIK
OSTILARRITZA

Tolosa. Neska erudikatu-na Kaldereortan eta Inauterietan Tolosako taldearen lan egiteko prest. Harremanetarako telefono zambakia: 659-96 99 62.

GASNERAKOAK

Tolosa. Alakian da-geen lokal bat konpartitu nahi duen psikologo bat naiz, ahal bada arlo berdineko lantokian baten.

psikologia, pedagogia, irakaskuntza... ifesi nahi duen pertsona batekin. Harremanetarako telefono zambakia: 665-74 44 79 da eta emaila, aldi, aidiabei@telefonica.net.

Denetarik
ERRENTAN

Tolosa. Tolosako Triangulo plazako apartakiekua plaza bat alokatzen dut arloberrietatik ostiralean 08:30etik 20:00etara. Argibideak: 688-62 68 35 telefono zambakia.

Familia/etxea
GASNERAKOAK

Yorky kumak salgai. Yorky kumak salgai ditut prezio interesgarrian. Kumeen jaioz eta data abenduak 24 da. Yorky berriak (miniatuak) janzkako kumak dira. Interesatu denak dei diezake 546-30 29 74 edota 94-33 04 45 telefono zambakietara edota orri argitaratzen den korreosa erabiltzeko.

Leku hau zure iragarkiarekin zain dago

Ikolan

ALDIBATEKO LANA
943-16 20 48
Bereziki jantzi berritatuak
Bilaketa
Bereziki argitaratzen dira.

salterako, erosteko, alokatzeko, bilatzeko, oparitzeko

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com
euskerazko iragarkilaburren ataria

Interneten iragarki gutxiak doan
Paperean ostiralean atal honetan doan saioa eta errentan orain no berriz iragarki gutxiak zambakia paperean edozein arlo iragarri sartzerakoan

Iragarriaren prezioak:
Aste bat 5€ / bi aste 9€ / hiru aste 12€ / bost aste 17€



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 034. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak: BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaledeko beste 77 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Hitza-k Bai Euskarari
Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan!

Jokin (Anoeta). Gaur 6 urte. Ez jarri aurpegi hori, ta ez egin parrik, oraindik ez duzu ta bastoian beharrik.



Urte askoan!

Eguzki Azkarate Arratibel (Ibarra). Gaur 9 urte. Zorionak familia eta lagunen partetik!



Zorionak aitaxto!
40 txokolatetzko muxu!



Zorionak!

Jose Manuel Iturria Balerdi (Villabona). Gaur 100 urte betetzen dituzunez, ZORIONAK zure seme-alaben, iloben eta biloben partetik.

agurrak
urtebetetzak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberrak
jaunartzeak...

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Gose eta Anger gaur Bonberenean 22:30ean.

Ibilaldia

■ **Ibarra.** Etzi urteko lehen moto bira egingo dute Langostino Moto Kultur Elkarteok. Izena emateko idatzi langostinomotofesta@gmail.com helbidera edo 618-448194 (Aitor) 670-417915 (Moski) edo 636-403170 (Anger) telefonoetara deitu.

Deialdia

■ **Tolosa.** Saharar errefuxiatu kanpamentuetarako elikagai eta produktu ezberdinak biltzeko *Piztu Itxaropena* kanpaina gaur amaitu-

ko da: azukrea, pasta, lekaleak, atuna oliotan, sardinak oliotan, arroza, konpresak eta eskolako materiala eraman daitezke udal-txeetara eta eskoletara. Kutxan 2101.0067.22.001180866 eta La Caixan 2100.1758.68.0200077750 kontu korranteetan ere sar daitezke dirua.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria I. Nafarroa etorbidea, 2. 943-65 46 10.
■ **Leitza.** Erbiti O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 beheko - 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 - 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P,K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

